



# COVID-19 NEWSLETTER

Alemania 2020/06/04



## INPAKTU EKONOMIKOA

### Makro datuak

<p>BPGaren % 2,2ko beherakada lehen hiru hilekoan                  BPGaren aurreikuspena 2020an % -6,3 eta % 7 bitartean</p>	<p>Inflazioa. Maiatza  <b>% 0,6</b>                  (% 0,3ko jaitsiera apirilarekin alderatuta)</p>
<p>Industriako / Zerbitzuetako PMI Indizea maiatzean  <b>36,6 / 32,6</b>                  (Otsailen 45,3 eta 54,2)</p>	<p>Langabezia 2020/06/03an  <b>% 6,1</b>                  (% 0,3ko igoera apirilarekin alderatuta)                  Maiatzean 7,3 milioi pertsona daude <i>Kurzarbeit</i> egoeran, errekor historikoa</p>

### Inpaktua sektore industrialetan

AUTOMOZIOA	IT/TELEKOMUNIKAZIOAK	AEROESPAZIALA
<p>Salmentak eta ekoizpena ikaragarri jaitsi dira automozio sektorean. Apirilaren 20az geroztik, sektoreko enpresek gradualki ekin diote ekoizpenari. ZF enpresak iragarri du 15.000 langileko plantillamurrizketa globala egingo duela. ETE askok kiebra deklaratu dute. Gobernu Federalak erabaki du erosketa-primarik ez eskaintzea gasolinadun edo dieseldun autoentzat</p>	<p>Egoera hau abantailatsua da sektore honen zati batentzat, telelana eta komunikazio-tresnak ezinbestekoak direlako. Adibidez, Deutsche Telekom telekomunikazio enpresaren irabaziak hazi egin dira, telefono deien kopurua handitu egin delako urteko lehen hiru hilekoan</p>	<p>Sektoreko enpresek berriro ekin diote ekoizpenari gradualki, Airbusek ere bai (maiatzaren 11tik). Ekoizpenaren bolumena gutxitu egin da. Lufthansa eta gobernuaren arteko elkarrizketak oso aurreratuta daude, gobernuak enpresaren % 25a eros dezan. Espero da akziodunek ekainaren 25ean onartuko dutela erosketa</p>




### ENERGIA

Dirulaguntzak eman dira energia berriztagarrien sektorean, eta eskatu da luzatu daitezela parke eolikoak exekutatzeko epeak. Petrolioaren eta mineral erauzketaren prezioek behera egin dute. Varta-k, bateria fabrikatzaileak, irabaziak izan ditu lehen hiru hilabeteetan, haririk gabeko aurikularren salmentak hazi egin direlako. Uste da argindarraren kostua asko igoko dela 2021erako: baliteke kWharen orduko batez besteko prezioa % 7 igotzea



### METALAREN SEKTOREA

Metalaren sektoreko enpresen jardura murriztu egin da hornikuntza ezagatik edo eskaerak bertan behera geratzeagatik. Thyssen-Krupp-ek eginiko aurreikuspenak ez dira oso baikorrak, eta bazkide komertzial bila dabil aliantzak sortzeko. Burtan zuen balioaren erdia baino gehiago galdu du urte hasieratik



### MAKINA-ERREMINTA

Ez da izan automozioa bezain kolpatua, baina produkzioa murriztu egin da hornikuntza gabeziagatik. Nahiz eta eskaera jaitsi egin den azken asteetan, hornikuntza hobeto funtzionatzen ari da, eta datozen hilabeteetarako nahiz urtearen bigarren erdirako aurreikuspenak baikorrak dira

## Inpaktua zerbitzuen sektorean

- ✓ **Ostalaritza, turismo eta entretenimendu sektoreak**  
 Gradualki irekiko da berriro
- ✓ **Alemaniar Futbol Liga**  
 Maiatzaren 16an hasi zen berri, baina ate itxiek
- ✓ **Supermerkatuak eta drogeriak**  
 Zabalik daude
- ↓ **Aireko garraioa**  
 Lufthansak % 95 murriztu ditu bere hegaldiak. Hegaldi erregularrak ugaritu egingo dira ekainaren 1etik aurrera, eta are gehiago uztailaren 1etik aurrera
- ✓ **Saltokiak**  
 Berriz irekiko dira aforo mugatuarekin
- ↓ **Autobusa eta trenak**  
 Zerbitzuak murriztu egin dira, Deutsche Bahn enpresak bere konexioen % 75 eskaintzen ditu, eta erabiltzaile kopurua handitzen ari da gradualki
- ✓ **Gastronomia**  
 Berriz irekiko dira aforo mugatuarekin, gradualki Estatu Federatu bakoitzaren arabera

\* Maskarak derrigor erabili behar dira toki publiko itxietan, hala nola, garraio publikoan, jatetxeetan, supermerkatuetan, drogerietan, dendetan, e.a.

## Inpaktua finantza sektorean

- ❖ **Interes tasak:** % 0
- ❖ **Merkatuak:** DAX 30 indizearen balioa ekainaren 3an: 12.200 (Balioa 2020ko otsailaren 20an: 13.700)



## EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

### GOBERNU FEDERALAREN LAGUNTZA SORTA

#### → Aurrekontu federala

- ❖ 122.000 milioi € gehiago 2020rako (2020an guztira: 484 mila MM. €)

#### → Zor berria

- ❖ 156.000 milioi €-ko kreditua

#### → Ekonomia egonkortzeko funtsak (WSF)

- ❖ 600.000 milioi eurorainoko laguntzak enpresa eta startup-entzat, berme eta “kapital propio” laguntzen bitartez, krisia arrakastaz gainditzeko

#### → EKONOMIA SUSPERTZEKO NEURRI-SORTA BERRIA (130.000 milioi €)

2020ko ekainaren 3ko proposamena. Hona hemen neurri garrantzitsuenetako batzuk (guztira 57 neurri/proiektu dira)

- ❖ 50.000 milioi €-ko dirulaguntzak etorkizuneko teknologientzat (adimen artifizialeko I+G-a, informatika kuantikoa, hidrogeno-energia, ibilgailu elektrikoa, 5G, e.a.)
- ❖ BEZaren murrizketa uztailaren 1etik abenduaren 31ra: arrunta % 19tik % 16ra eta BEZ murriztua % 7tik % 5era
- ❖ Familientzako hobariak: 300 € seme-alaba bakoitzeko subsidioa jasotzeko eskubidea duten familientzat
- ❖ Badirudi argindarraren kostua igo egingo dela, eta horrek ez dezan eraginik izan kontsumitzaileengan, 2021etik aurrera murriztu egingo da energia berriztagarria ekoizten duten lantegiak sustatzeko Energia Berriztagarriaren Araudiko (EEG) tasa
- ❖ 5.000 milioi €-ko laguntza federalak Deutsche Bahn bankuaren kapital sozialerako, eta 2.500 milioi €-ko dirulaguntza bat aldiriko garraio publikorako
- ❖ 6.000 milioi € inguruko laguntza federalak udalerrientzat (*Kommunen*), azken hilabeteetan izan dituzten galera fiskal handiengatik
- ❖ Gobernuak “2021eko Berme Soziala” sortu nahi du Gizarte Segurantzari eginiko ordainketen beharakada konpentsatzeko

25.000 milioi € ETEentzat: 150.000 €-rainoko laguntzak 3 hilabetez gastu finkoak ordaintzeko, enpresek ez dezaten kiebra jo (1.000 milioi € kulturaren sektorerako)



## → Enpresentzako laguntzak

- ❖ **Autonomo eta enpresa txikientzako zuzeneko laguntzak:**
  - 9.000 €-rainoko laguntzak (ordainketa bakarra) 3 hilabeterako, lanaldi osoko gehienez 5 langile dituzten enpresentzat
  - 15.000 €-rainoko laguntzak (ordainketa bakarra) 3 hilabeterako, lanaldi osoko gehienez 10 langile dituzten enpresentzat
- ❖ **Kurzarbeitergeld (Lan-murrizketetarako dirua):** lanorduak murriztu behar izan dituzten eta, ondorioz, nomina murriztua kobratzen ari diren langileei zuzendua (2020.12.31ra arte)
  - Enplegu-agentziak soldata garbiaren % 60 eta % 67 bitarte ordainduko die langileei
  - Lanaldia % 50 murriztu bada:
    - Laugarren hilabetetik aurrera, soldata garbiaren % 70era handituko da laguntza (familientzat % 77)
    - Zazpigarren hilabetetik aurrera, soldata garbiaren % 80ra handituko da laguntza (familientzat % 87)
- ❖ **Likideziarako laguntzak – Soforthilfe** (berehalako laguntza): Epe laburreko likidezia premiari erantzun nahian, “laguntza-tresna” zabalduak abiarazi dira tamaina guztietako enpresentzat
- ❖ **Zergen ordainketa atzeratzea:** zergak ordaindu beharrak zailtasun handiak badakarzkio enpresari, zergadunak “ogasunari” eska diezaioke zergen ordainketa atzeratzeko (osorik edo partzialki)
- ❖ **Bankuko mailegu azkarrak (KfW bankua):**

Enpresa bakoitzeko kreditu-bolumena gehienez 500.000 eurokoa da 11-50 langile bitarteko enpresentzat, eta 800.000 eurokoa 50 langiletik gorako enpresentzat. Gobernu federalak kreditu-arriskuaren % 100a abalatu du. Itzultzeko epeak 10 urtekoak izango dira



## → Ostalaritza sektorerako laguntzak

Gobernu Federalak baieztatu du elikagaiak (edariak izan ezik) establezimenduan bertan kontsumitzeagatik BEZa % 19tik % 17ra murriztuko duela 2021eko ekainaren amaierara arte. Neurri horren ondorioz, Ogasunak 2,7 mila milioi € gutxiago jasoko ditu zerga-bilketan



## MUGAK

### Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

- ✓ **Merkatu-gaien garraioak** berdin jarraitzen du lanean
- ↓ **Barneko hegaldiak** murriztu egin dira (LHren hegaldiak % 95. Aurreikusi da berriz ugarituko direla ekainaren 1etik aurrera)

### Biztanleriaren mugikortasuna - Neurri murriztaileak arintzeko estrategia berria eta eskualdeko geo-kokatutako larrialdi-plana (*Landkreis*)

- 📍 **Kontaktu-murrizketak** herrialde osoan martxoaren 23tik, momentuz ekainaren 5era arte (aurreikusten da uztailaren 5era arte luzatuko dela)

Estatu Federatu bakoitzak hartutako neurriak Gobernu Federalak hartutakoen gainetik daude




- ❖ 1,5 m-ko gutxieneko distantzia gorde behar da
- ❖ Bi nukleo familiarretako hainbat pertsona elkartu daitezke espazio publikoetan
- ❖ **Maskara erabili behar da** establezimenduetan eta garraio publikoan
- ❖ **Saltoki guztiak irekiko dira**
- ❖ **Eskolak** eta haurtzaindegiak **gradualki irekiko dira**
- ❖ Pertsona jakin batek (aurretik adostuko da nor izango den) bisitan joan ahal izango du zaharren egoitzetara, ezgaituen zentroetara eta ospitaleetara
- ❖ Kirola egin ahal izango da aire librean eta taldean
- ❖ **Ekitaldi** handiak bertan behera utzi dira abuztuaren 31ra arte (Berlinen urriaren 24ra arte)
- ❖ Neurria eginiko larrialdi-plan bat jarriko da martxan, baldin eta eskualde batean 100.000 biztanleko 50etik gora infektatu detektatzen badira azken 7 egunetan

! Gomendatzen da:

- Atzerrian dabilzan **Alemaniko biztanleak herrialdera itzultzea lehenbailehen**
- **Herrialdetik ez irtetea guztiz beharrezkoa ez bada**

### Mugetako egoera

- ! **Bidaiazteko alerta**  
Gobernu Federalak 2020ko ekainaren 14ra arte luzatu zuen nazioarteko bidaia erregularren alerta
- 📍 **Errepideak**  
Inguruko herrialdeekiko mugak irekitzeko aukera eztabaidatzen ari dira (ikusi hurrengo orriko mapa)
- ✓ **Portuak**  
Lanean dihardute jarduera ekonomikoa mantentzeko, eta Txinarekiko salerosketak ugaritu egin dira
- ↓ **Aireportuak**  
Nazioarteko hegaldiak ugaritzen ari dira pixkanaka



**!** **Dagoeneko ez da** derrigorrezkoa da **15 eguneko berrogeialdia egitea Alemaniara itzultzean** (edozein herrialdetatik iritsita ere). Badaude salbuespen batzuk turismoaren zirkulazio librea mugatzen dutenak, eta orobat badaude murrizketa batzuk azken 7 egunetan jatorriko eskualdean 100.000 biztanleko 50etik gora infektatu erregistratu diren kasuetarako  
 Ikusi: [https://www.rki.de/DE/Content/InfAZ/N/Neuartiges\\_Coronavirus/Quarantaene\\_Einreisen\\_Deutschland.html](https://www.rki.de/DE/Content/InfAZ/N/Neuartiges_Coronavirus/Quarantaene_Einreisen_Deutschland.html)

**!** Abisua datozen asteetan Alemaniara joan beharko duten euskal enprezentzat



**Basque Trade & Investment-en Alemaniako bulegotik**, laguntza eman diezazukegu kasuan kasuko erakundeekin harremanetan jartzeko, horrela, posible izango duzu Alemanian sartzea berrogeialdia egin gabe (betiere Alemanian egin beharreko lana beharrezkotzat jotzen bada). Jarri harremanetan María Sarricolearekin | [msarricolea@basquetrade.eus](mailto:msarricolea@basquetrade.eus) | +49 151 1165 0219

**!** **LURREKO MUGEN EGOERA** ekainaren 2an. (Parentesi artean berririkiera data). Egungo egoera, salbuespen batzuk izan ezik (mugaz gaindiko langileak, beste langile batzuk eta merkatu-gaien zirkulazioa). Alemania eta Espainiaren arteko muga itxita dago bi norabideetan, justifikatutako salbuespenentzat izan ezik (lan arlokoak nahiz pertsonalak)

